



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA  
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C

Tel: 948 76 43 75

jvaezkoa@infolocal.org

valledeaezkoa@gmail.com

www.aezkoa.org

Ariben, 2020ko maiatzaren 19an, 13:00etan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

### **EGUNEKO GAIAK:**

#### **BERTARATUTAKOAK**

**Presidente jauna:** Karlos Bueno Reka

**Batzarrekide jaun-andereak:** Anchorena, Francisco Javier - Apat, Javier - Galarza, M<sup>a</sup> Carmen - Zabalza, Izaskun.

#### **LEHENA.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.**

Eragozpenik agertu ez denez, onetsita gelditu dira 2020ko martxoaren 17an eta urtarrilaren 31n egindako bilkuren aktak.

#### **BIGARRENA.- 2020 BASO PLANEKO ENKANTEA**

Jaso da Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak onetsitako 2020rako Aezkoako Mendietako aprobetxamenduen urteko planari dagozkion baso-loteak saltzeko seinalamendua eta baimena, Natura Ingurunearen Zerbitzuko zuzendariak emandako maiatzaren 12ko 187/2020 Ebazpenaren bidez.

Osoko Bilkurak enkante publiko bidez saltzea erabaki du, eta Nafarroako Toki Araubidea eguneratzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen 5. xedapen gehigarrian eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoaren arabera tramitatuko da. Seinalamenduan sartzen diren loteak, beren balorazio ekonomikoekin batera, 2020ko planari dagozkionak dira, eta Nafarroako Gobernuak lote bakoitzerako onartutako baldintza teknikoen agiriari eta Osoko Bilkurak onartu eta akta honi eranskin gisa eranstean zaion baldintza ekonomiko-administratiboaren agiriari lotuta egonen dira.

Honako hauek dira enkantean jarriko diren oihan-loteak:

- 1/2020 Lotea - Alderdia: LANTEGIS ANTXOS-MUSTAKOERREKA.  
Pagoak - Azken mozketak eta bakandua. Kokapena: 149b, 150b, 154b, 153b, 151a, 152c, 152a, 155a, 161d.

1.246 pago oin ditu, 2.597 m<sup>3</sup> egiten dutenak; horietatik: 1.197 m<sup>3</sup> bigarren mailako zur dira, metro kubikoko 45,00 €an baloratutakoak, eta 1.399 m<sup>3</sup> egur-zatiak dira, 15,00 €an baloratutakoak. Zurak berrogeita hamahiru mila zortziehun eta hirurogeita hamalau euro eta hamaika egiten ditu (53.874,11 €)

eta egurrak, berriz, hogeita mila bederatziehun eta laurogeita hamaika euro eta berrogeita zazpi zentimo (20.991,47 €).

Loteak, guztira: 74.865,58 € (hirurogeita hamalau mila zortziehun eta hirurogeita bost euro eta berrogeita hemezortzi zentimo egiten ditu).

- 2 /2020 Lotea - Alderdia: GIBELEA. Mozketa mistoa. Kokapena: 368a,368c, 367b, 367g, 362e, 369b eta 374a.

1.640 pago oin ditu, 4.531 m<sup>3</sup> egiten dutenak; horietako 242 m<sup>3</sup> kalitate goreneko zur dira, metro kubikoko 50,00 €an, hamabi mila ehun eta hemeretzi euro eta laurogeita hamaika zentimo (12.119,91 €), egiten dutenak; 1.721 m<sup>3</sup> bigarren mailako zur dira, metro kubikoko 45,00 €an, hirurogeita hamazazpi mila, lauhun eta berrogeita hemeretzi euro eta hirurogeita hamasei zentimo egiten dutenak (77.459,76 €); eta 2.567 m<sup>3</sup> egur-zatiak dira, 15,00 €an/ m<sup>3</sup>, hogeita hemezortzi mila bostehun eta hamar euro eta berrogeita hamasei zentimo (38.510,56 €) egiten dutenak..

Loteak, guztira, 128.090,22 € (ehun eta hogeita zortzi mila, laurogeita hamar euro eta hogeita bi zentimo) egiten ditu.

Eskaintzak 2020ko ekainaren 8ko 12:00ak arte aurkeztu ahal izango dira, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Erregistroan, baldintza administratiboen pleguan adierazitako dokumentazioarekin batera. Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekiko dira ekainaren 12an, 12:00etan, Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan (Aribe).

## **HIUGARRENA.- WEB-ORRI INSTITUZIONALA. TESTUAK ETA DISEINUA.**

Orria diseinatzeko proposamena aurkeztu da, honako atal hauek izanen dituen: hasiera, administrazioa, zerbitzuak, gaurkotasuna eta haren banakapena, eta baita atal bakoitzean sartuko liratekeen testuen zirriborro bate re. Udalei jarduera ekonomikoen zerga kobratzeko duten enpresen zerrenda eskatu zaizkie, haiekin harremanetan jartzeko eta, interesa izanez gero, bailarako enpresen gida bat sartzeko, zerbitzuez eta gainerako erakundeez gain.

Erabaki da testuak eta diseinua berrikustea, gaiak itxi ahal izateko eta orria lehenbailehen prest izateko.

## **LAUGARRENA. - IRATI 2020: INFORMAZIO ZERBITZUA.**

Erabaki da langileen ordezkariarekin informazio-zerbitzua irekitzeko planteamendua lantzea, hartzen ari diren segurtasun-neurri guztiak berrikustea eta funtzionamendurako protokolo adostu bat ezartzea. Hasiera batez, oraindik denbora dagoela ematen du, baina Gobernu zentralak dena aurreikusi duen moduan badoa, ekainaren 24a aldera alarma egoera amaituko litzateke. Informazio-gunea uztailean irekitzea da proposamena.

Egoki ikusi da atepeak itxita edukitzea, hasieran behintzat, eta egoeraren bilakaeraren arabera, irekitzeko aukera aztertuko da. Halaber, sarbide-kupo batzuk ezartzea egokia den aztertuko da.

Bestalde, langileak hautatzeko, gai-zerrenda zehaztea eta proben deialdia prestatzea erabaki da. Gai-zerrenda Batzarre Nagusiko Turismo Batzordeak berrikusiko du. Ohiko teknikariei eskatuko zaie hautaketa-epaimahaira joan daitezkeen; ezezkoa ematen badute, proba teoriko bidez bakarrik egingen da hautaketa. Era berean, B2 mailako euskararen ezagutza-proba egiteko eskatuko zaio Euskarabideari. Probak egiteko baldintzak aurreko urteetan bezala mantendu dira.

### **BOSGARRENA.- POCTEFA-SASCIRATI PROIEKTUAREN EGOERA ETA KONTU-LERROEN BALIZKO ALDAKETAK.**

Se presenta la ejecución del proyecto Poctefa hasta el momento y la previsión de gastos a realizar. Se han incluido todas las modificaciones respecto al planteamiento inicial, quedando pendiente a esta fecha determinar los gastos de asesoramiento técnico y administrativo correspondientes al período de prórroga del proyecto, y los posibles trasvases de partidas no ejecutadas hacia aquéllas cuyo presupuesto final se va a superar, en particular las inversiones. Una de las partidas que no se va a poder ejecutar este año es la del parking, al haberse denegado por Patrimonio la autorización al proyecto propuesto y quedar la otra alternativa inviable este año por las obras que pretenden realizar en las ruinas; asimismo hay partidas no previstas que se han tenido que incluir como la dotación de potencia eléctrica al edificio del Palacio mediante una línea nueva, proyecto a realizar por Electra Orbaizeta y con la financiación de esta Junta.

Por otra parte, se ha solicitado una prórroga equivalente al tiempo de suspensión de los plazos administrativos que ha afectado a la tramitación de todos los expedientes de contratación, y se está a la espera de la respuesta.

Cuando se tengan todos estos datos se revisará de nuevo la ejecución del proyecto y se adoptarán, en su caso, los acuerdos que correspondan.

Poctefa proiektuaren orain arteko gauzatzea eta egin beharreko gastuen aurreikuspena aurkeztu dira. Hasierako planteamenduari dagozkion aldaketa guztiak sartu dira, eta, egun honetan, proiektuaren luzapen-aldiari dagozkion aholkularitza teknikoko eta administratiboko gastuak zehaztu beharko dira, bai eta gauzatu gabeko partidak azken aurrekontua gaindituko zaien haietara aldatzeak ere, bereziki inbertsioetara.

Aurten gauzatu ezin izango den partidetakoa bat aparkalekuarena da; izan ere, Ondare Sailak ukatu egin dio proposatutako proiektuari baimena, eta beste aukera bideraezina da aurrietan egin nahi dituzten obregatik; era berean, aurreikusi gabeko partida batzuk ere sartu behar izan dira Jauregiko eraikinaren potentzia elektrikoaren zuzkiduran, linea berri baten bidez (Electra Orbaizetak egin beharreko proiektua) eta finantzaketarekin. Hau Bestalde, kontratazio-espeditu guztiak izapidetzeari eragin dion administrazio-epaiek etenda egon diren denboraren pareko luzapena eskatu da, eta erantzunaren zain gaude.

Datu horiek guztiak daudenean, proiektuaren gauzatzea berrikusiko da, eta, hala badagokio, dagozkion erabakiak hartuko dira.

### **SEIGARRENA.- 2019. EKITALDIKO KONTUAK**

2019ko ekitaldiko kontuak aurkeztu dira. Espedientea bideokonferentzia bidez azaltzea zaila denez, erabaki da batzordekideek datu guztiak berrikustea, nahi dituzten kontsultak egitea eta, aurrez aurreko bilera bat egin ahal denean onartzeko uztea.

#### **ZAPIGARRENA.- BASO LANAK: KAREA EMATEA.**

2020. urteari dagokion baso-lanen proiektutik, sastrakak kentzea/kareztatzea eta itxiturak kentzea izeneko separatak lizitzatzeko daude. Bilera bat egin da, uste baita ez liratekeela kareztatze-lan guztiak egin behar, baizik eta hasieran proposatutako eremu jakin batzuetan kareztatu, eta beste lan batzuk egiteko behar besteko aurrekontu-esleipena uztea. Azken kareztatze-eremuak Abeltzainen Batzordeak berrikusiko ditu, eta erabakitakoari egokituko da separatan zehaztutakoa.

#### **ZORTZIGARRENA.- HAINBAT**

##### **- Zuntz optikoaren hedatzea**

Nafarroako Gobernuaren proiektu estrategikoak Kudeatzeko eta Koordinatzeko Ataleko teknikariek, Cederna-Garalur elkartearekin, Hiriberri, Orbara eta Orbaizetako udalekin eta zuntz optikoa hedatzeko proposamenak aurkezten dituzten bi enpresarekin (Guifinet eta Sisnet) egindako bileraren berri eman da. Zuntza Nafarroako Gobernuak garatzen ari den fasetik kanpo geratzen diren udalerrietara zabaltzeko bi proposamen dira; izan ere, hiru-bost bat urte itxaron beharko lukete Nafarroako Gobernuak egingen duen hurrengo hedatze plana hasi arte.

Hedadura zabaltzeko bi proposamen dira, guztiz desberdinak kudeaketa-ereduari, aurrekontuei eta zuntza eskuratzen duten partikularren ekarpenei dagokienez. Horietako bat osatzeko eskatu da, zuntza Arrazolako etxolaraino eta urtegitainoko luzapena jaso dezan. Datu guztiak daudenean bidaliko da dokumentazioa.

##### **- Kultur taldeentzako dirulaguntzak**

Bere garaian kulturako eta belaunaldien arteko jardueretarako laguntzak banatzeko ezarri ziren oinarriak berrikustea eta elkarteetako ordezkariekin biltzea erabaki da, ekitaldi honetarako proposamenari buruz duten iritzia kontsultatzeko.

##### **- Kultur ondare immaterialarentzako dirulaguntzak.**

Kultur ondare immaterialaren proiektuetarako erakundeentzako laguntzen deialdia. Batzarre Nagusiak aurtan ezin du sarbiderik izan aurrekontu espezifikorik ez duelako, baina deialdi hau bailarako hainbat talderi helaraz dakieke, baldin eta beren proiektuak oinarri horietan sar baditzaquete.

##### **- Zerbitzuetarako ibilgailuak**

Laster kontratatuko diren baso-lanetako langileek erabiliko duten ibilgailuaren renting-erako aurrekontua eskatu da.

#### **- Explora sarea**

Explora Sarea natura-guneen, espazio berezien eta erabilera publikoa kudeatzen duten ibilbideen sare bat da, kokatuta dauden tokiaren eta Nafarroaren lurralde-garapen jasangarriari laguntzeko.

Cedernak Lursarea-Nasuvinsa buru duen Explora sarearen taldean lan egin du, COVID 19a dela eta, denboraldi honetarako Nafarroako naturguneen jarduketa-plana garatzeko. Egitekoak hainbat lan-ildo ditu: edukieren kontrola, prestakuntza, zabalkundea eta komunikazioa, berme-zigiluak... Naturguneen titular diren Udallerri asko ez dira ustiapen-sare horren parte, Batzarre Nagusia ere ez den moduan. Orain planteatuta dagoen bezala, ez du inolako kuotarik edo konpromiso ekonomikorik behar. Sare horri buruzko informazioa, memoria, estatutuak eta atxikitzeko eskaera bidali dituzte, Batzarre Nagusiak bertan parte hartu nahi ote duen.

Gaur egun 40 bazkide daude, 70 gune eta 2.400 kilometro egiten dituzten ibilbideak ordezkatzeko. Osoko Bilkurak erabaki du proposamena berrikustea, eta sare horri atxiki ala ez aztertuko du.

#### **- Labeak zaharberritzeko proiektua, Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuak bultzatutakoa.**

Ondare Zerbitzuak Orbaizetako antzinako munizio-olako labeak eta gurpil-kanala zaharberritzen jarraitu nahi du, Ondare Ataleko teknikariek idatzitako proiektuaren arabera. Proiektuak labeen nukleoko ahokadurekin lotutako zenbait sendotze-lan planteatzen ditu, bi atari altuetako arotzeriekin batera, arragoa, talajea eta ekialdeko labe-alkandoraren hasiera partzialki berreraikitzea ulergarria izan dadin, gurpil-kanalaren hormartea sendotzea ikusmena ahalbidetzeko, labe-bulegoa garbitzea, sarbidea hobetzeko, ikaztegietatik zati baterako pasabidearen bidez.

Batzarre Nagusiari baimena eskatu diote deskribatutako obrak egiteko, arma olako labe-eraikina berea baita.

Osoko Bilkurak erabaki du Ondare Historikoaren Zerbitzuari baimena ematea deskribatutako proiektua gauzatzeko.

#### **- Urkuluko ibilbidea**

Euskal Hirigune Elkargoak (Hasparren lurraldeko Poloa -Turismo Zuzendaritza) eskabide bat aurkeztu du, adierazteko Erkidegoko bidezidor seinaleztatutakoen sarea (oinez, BTTz nahiz zaldiz egitekoak) berrantolatzen ari direla adierazteko. Batzarre Nagusiarenak diren lurretan barna igarotzen da ibilbide horietako bat, Urkuluko bidexka hain zuzen ere, sartu nahi dute sarean. Ibilbide hori aspaldikoa da, baina bidezidorren sarean sartzeko eta mantentze-lanak egin ahal izateko beharrezko baimena lortu nahi dute.

Osoko Bilkurak positibotzat jotzen du bide hori mantentzea, eta erabaki du elkargoaren sarean sartzeko eta mantentze-lanak egiteko baimena ematea.

## **- Baso-peoiaren baremoa**

Egungo egoera dela eta, zaila izan da proba praktikoak egitea Basogintzako eta Ingurumeneko lanentzako langileak hautatzeko (NSZren diru-laguntza du). Hori dela eta, erakunde horrek curriculumaren baremazioa soilik egitea aholkatu zuen. Baremazio hori haiekin adostuta ezarri zen, eta interesdunen eskura jarri zen lan-eskaintzarekin batera. Lau hautagai aurkeztu dira, eta hasiera bateko puntuazioak esleitu dira, alegatutako merezimenduren bat justifikatzeko titulazioak aurkeztu eta euskararen ezagutza-proba egin ezean. Epea bi egunetan amaitzen da, eta, orduan, esleitutako puntu guztiak berrikusi eta puntuazio handiena lortu duten biei deituko zaie.

Udalbatzak erabaki du maiatzaren 25ean hasia lanean. Era berean, Aezkoako udalekin hitz egin da, zerbitzu hori izan nahi duten eta behar dituzten egunak adieraz ditzaten, lana antolatzeko.

## **BEDERATZIGARRENA.- GALDEAK ETA ESKEAK**

Ez da izan.

Eta aztertzeke gai gehiagorik agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da goian adirazitako eguneko goizeko hamaikak eta hogeita hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.